

167. ALDIZKARIA - 2016ko abuztuaren 30a

ANTSOAIN

Ordenantza, Udalaren lokalen erabilera herritarren elkarteei lagatzeko arauak ematen dituena. Behin betiko onespena

Antsoaingo Udalak, 2016ko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Antsoaingo Udalaren lokalen erabilera herritarren elkarteei lagatzeko arauak ematen dituen ordenantza. 2016ko 109. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 7an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, eta jendaurrean egoteko epea iraganik inork erreklamazio, kexa edo oharrik egin gabe, ordenantza hori behin betiko onetsi da eta, beraz, osorik ematen da argitara.

Antsoainen, 2016ko abuztuaren 1ean.–Alkatea, Ander Andoni Oroz Casimiro.

ORDENANTZA, UDALAREN LOKALEN ERABILERA HERRITARREN ELKARTEEI LAGATZEKO ARAUAK EMATEN DITUENA

Elkarteei gaur egun berebiziko garrantzia dute herritarrei parte hartzeko bidea emanen dien gizarte demokratikoagoa eraikitzeko prozesuan, eta gizartearen aitzinamenduaren funtsezko eragileak dira.

Hortaz, beharrezkoa da herritarrek parte hartzea Antsoaingo elkarte sarea osatzen duten herritarren entitate eta elkarten bidez, komunitatearen gizarte eta kultur aberastasuna zaindu eta areagotzeko eta, aldi berean, elkarteei ordezkatzen dituzten gizarte sektoreen arazoez arduratzeko.

Esparru horretan ari da Antsoaingo Udala, elkarte sarea sustatzen, elkarten beharrak asetzeko ahaleginean, Udalaren jabari publikoaren erabilera bereziko baimena emanez.

Helburua da gizartearen intereseko jarduerak sustatzea, Udalaren titulartasunekoak diren lokal eta ekipamenduen erabilera lagata borondatez eta doan.

Araudi honen bitartez arauak eta bideak ezarri nahi dira Antsoaingo irabazi asmorik gabeko gizarte, kultur eta kirol arloko entitateei egoitza soziala edo toki bat emateko, beren jarduerak egin ditzaten. Gainera, leku horiek elkarteetako kideen bilguneak eta Antsoaingo bizilagun guztien erreferentzia guneak izatea nahi da.

Udal titulartasuneko ondasunak dira eta herriko elkarte askok erabil dezakete. Beraz, Udalarik bakarrik dagokio lagapenen onuradunak nor izan daitezkeen erabakitzea, irizpide objektiboak erabiliz eta zenbaterainoko lekua dagoen kontuan hartuz.

Antsoaingo Udalak du tutoretzarako ahalmena eta horren arabera ezarriko dira antolaketa neurri eta arau oinarritutakoak, galarazi gabe une bakoitzean lokalak erabiltzen dituzten entitateen autonomia.

Lagapen guztiak, edonolakoak izanik ere, Udalaren eta lagapen hartzaileen artean ardurak partekatze printzipioak zuzenduko ditu betiere.

I. TITULUA

ORDENANTZAREN XEDEA

1. artikulua. Xedea.

1.–Ordenantza honen xedea da irizpideak eta prozedura orokorra ezartzea udal lokalen erabilera lagatzeko hala eskatzen duten elkarteei.

Akordioak ezartzen duen bezainbat iraunen du lokalaren lagapenak, eta hura doakoa eta prekarioan egina izanen da, eta inoiz ere ezin izanen da pentsatu eskubide ekonomikorik edo errentamendukorik sortzen duenik inolako alderdirendako.

2.–Erabileraren lagapenaren xedea da gizarte entitateei beren jarduerak egiteko eta beren xede estatutarioak erdiesteko tokia ematea, betiere egonkortasuna eta jarraitasuna helburu.

3.–Unean uneko beharrak asetzen dituzten aldi baterako lagapenak ordenantza honetatik kanpo daude, udal baimen egokiaren bidez arautuko baitira, eta orobat berariazko araudia duten higiezin edo ekipamenduen lagapenak.

2. artikulua. Lagako diren lokalak.

Antsoaingo Udalak, organo eskudunaren bidez, udal lokalak lagako dizkie eskaera egiten duten herriko elkarteei, hala behar badute eta ahal den heinean, onura publikoko edo interes sozialeko xedeetarako. Lokal horiek aitzinetik zehaztuko dira.

3. artikulua. Ordenantza honi heltzen ahal dioten entitateak.

1.–Elkartzeko Eskubidea Arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren babesean legez eraturako elkarteek udal lokala eskatu ahal izanen dute beren xede sozialari lotutako jardueretarako; ezinbesteko baldintza izanen da elkarte interesduna irabazteko asmorik gabea izatea, onura publikoko edo interes sozialeko xedeak izatea eta izen emana egotea Nafarroako Foru Komunitateko erregistro egokian eta, hala behar badu, Antsoaingo Elkarten Udal Erregistroan. Era berean, kirol entitateek Udalaren lokal bat erabiltzea eskatzen ahalko dute baldin osatu badira Foru Komunitatearen kirolari buruzko araudiaren arabera (80/2003 Foru Dekretua, apirilaren 14koa, Nafarroako Kirol Erakundeak eta Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroa arautzen dituenak), Antsoainen helbideratuak badaude eta Nafarroako kirol entitateen erregistroan inskribatuak, Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen arabera.

2.–Elkarteak irabazteko asmorik ez duela ulertuko da estatutuetan hala adierazten denean eta elkarteak inolako jardura ekonomikorik ez duenean, edo jardura ekonomikoaren helburu bakarra estatutuetan ezarritako interes orokorreko xedeak betetzea denean, bazkideen edo hirugarrenen artean inolako irabazirik banatu gabe, ez zuzenean ez zeharka.

3.–Betiere, Udalak lagapenerako lehentasuna bermatuko die herritarrendako zerbitzuak eta laguntza ematea xede duten entitateei, eta erabileraren helburua honako hau dutenak:

–Hezkuntza zerbitzuak.

–Honelako gizarte arazoendako aurreneurriak edo laguntza bideratzea:

- Aukera berdintasuna.
- Gizarte bazterketaren aurkako borroka.
- Desgaitasunak.
- Gizarte prebentzioa eta droga-mendekotasuna.
- Immigrazioa.
- Balioen eta arduren garapena haurtzaroan eta/edo gaztaroan.
- Gizarte eta osasun arloan diharduen beste edozein.

–Kulturako eta/edo aisia eta astialdiko beste proiektu batzuk, interes orokorrekoak.

–Kirol jarduerak sustatzea eta egitea, osasun integrala, hezkidetza eta gizarte integrazioa sustatuz.

4.–Esleitzeko irizpideetan, lokalaren zertarakoa ez ezik, kontuan hartuko da zenbat denboraz erabiliko den (egunero, astean behin, hilabetean behin, hamabostean behin...), zenbat izanen diren zerbitzuaren onuradunak, elkarteak zenbat urte dituen herrian kokatuta eta bertako jardueretan parte hartzen, eta beste irizpide tekniko batzuk, beharrezkotzat jotzen direnak.

4. artikulua. Eskaerak.

Elkarte interesdunek idatziz eskatzen ahal diote Udalarari udal lokaletako espazioak edo aretoak lagatzea, II. eranskineko eskabide ereduak aurkeztuz, baita urteko proiektua ere, honako hauek zehazturik: jarduerak eta zerbitzuak, ordutegiak, parte-hartzaileak eta egin beharreko jarduerak.

Udalaren Zerbitzu Teknikoek eskaera bakoitza aztertuko dute, eta, ekipamenduak erabiltzeko aukeren arabera, txosten bat eginen da, non agertuko baitira erabilgarri dauden ondasun higigarri lagatuak (halakorik balitz), eta Tokiko Gobernu Batzarrari igorriko zaio.

5. artikulua. Lagapena.

1.–Proposamen teknikoak eta Udalaren Zerbitzu Teknikoek igorritako txostena azterturik, Gobernu Batzarrak onetsiko du ordenantza honen xede diren higigarri edo ekipamenduetako espazio edo aretoak erabiltzeko aukera, ondasun moten arabera, ordenantza honetan aurreikusitakoarekin bat.

2.–Deialdiaren xede diren udal lokaletako espazio edo aretoen erabileraren lagapena onartuko du erabakiak, urtebeterako. Delako erabakian zehatz adieraziko da zertarako erabiliko diren ondasunak, eta egokitzen jotzen diren baldintza, muga eta berme guztiak ezarriko dira. Horietakoren bat hausteak ondasuna erabiltzeko lagapena galtzea ekarriko du. Arau orokor gisa, erabiltzeko lagapena abenduaren 31n iraungiko da, eta ezin izanen da luzatu, eta orduan bukatuko da erabilera, salbu urtearen azken sei hilabeteko epean eskatu bada lagapena.

3.–Erabakiari ondasun higigarrien inbentarioa erantsiko zaio, horien erabilera ere lagatzen bada.

4.–Erabakiak espresuki aipatuko ditu Udalak elkarteari lankidetzaren gainean eskatzen dizkion konpromisoak, onura publikoko edo interes sozialeko helburuak betetzeko. Horiek bizilagunei on eginen diete eta betetzen ez badira ondasunak besterik gabe itzuliko zaizkio Udalarari.

5.–Udalak ez ditu zuzentzen ezta onesten lagatako lokaletan egitekoak diren jarduerak. Elkarteek ez dute Udalarekin inolako mendekotasun harremanik, eta hark ez ditu bere gain hartuko, ez zuzenean ez subsidiarioki, lokalaren barnean gerta daitezkeen kalte material, pertsonal edo moralak.

6. artikulua. Betebeharrak.

1.–Lokal baten erabilera lagatzen zaion elkarteak ordenantza honetako xedapen eta arauak bete beharko ditu, baita Tokiko Gobernu Batzarraren erabakian ageri direnak eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta gure antolamendu juridikoan aldi bakoitzean indarra duten gainerako araudietan ezarritako guztiak ere.

2.–Urte bakoitzeko abenduan, elkarte esleipendunak memoria bat aurkeztu beharko du Udaletxean, erabilera-lagapeneko espazio edo aretoetan egindako jarduerari buruzkoa, eta III. eranskineko inprimakia bete beharko du, salbu biltegirako bakarrik erabiltzen bada.

II. TITULUA

LOKALAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

7. artikulua. Erabilerak.

1.–Erabilera eskusiborako lagatzen diren tokiak bere eginkizun edo jardueretarako erabili ahal izanen ditu entitate onuradunak, estatutuetan ezarrita dituen helburuei jarraikiz. Lagapen erabakian edo baimenean gai hori zehatzago arautu ahal izanen da, hala behar duten puntuetan.

2.–Lokal bat entitate bakar bati lagatzen ahal zaio, edo hainbat entitateri, batera erabil dezaten, eskura diren baliabideen arabera eta kontuan harturik jarduera mota zein den.

3.–Lagapen erabakian zehaztuko da lokala zertarako den: bilera, biltegia, bulegoa eta abar.

4.–Aurrekoetz bestelako erabilera guztiak Antsoaingo Udalak baimendu beharko ditu.

8. artikulua. Mantentze-lanak.

1.–Elkarteek behar bezala zaindu behar dituzte erabilera eskusiboko tokiak, erabilera orokorrekoak eta higiezin osoa, baita altzariak ere. Elkartekide edo erabiltzaileek ekintzaz edo axolagabekeriak eragiten dituzten kalteen erantzuleak elkarteak izanen dira, eta lehenbailehen konpondu beharko dituzte kalteak beren kontura, Udolari baimena eskatu eta gero. Atal hau ez da aplikatuko erabiliaren erabiliaz edo ustekabeko onorioz lokala hondatzen denean, entitate onuradunak errurik izan gabe.

2.–Entitate onuradunen egitekoa izanen da lagatako ondasun higigarriak mantendu eta konpontzea. Garbitasuna eta ordena zainduko dituzte. Egunero lokala erabili ondotik garbitu eginen dute eta altzari eta tresnak ordenatuko dituzte, zenbait elkarte batera erabiliz gero higiezina erabiltzeko baldintza hoberenetan dagoela bermatu beharko baitute.

Udalaren nahiz elkarten gogoia da lokalak ahalik eta hobekien mantendu eta zaintzea, eta hori aldeko irizpidea izanen da lokalaren erabilera laga eta berritzeko tenorean.

3.–Elkarte bakarrak banaka erabiltzeko lagatako lokaletan, elkartearen ardura izanen da lagatako espazioaren garbiketa. Antsoaingo Udalaren ardura da espazio amankomunen garbiketa. Telefono finkoa, haren alta eta ordainketa dagokion elkartearen kontura izanen dira, baita behar diren baimenen tramitazioa ere.

4.–Zenbait elkarte batera erabiltzen dituzten lokaletan, Udalak jarriko ditu hornidura horiek. Erabilera partekatuko lokal horien garbiketa elkarten kontura izanen da. Elkarte bakoitzak ordena eta garbitasuna zainduko ditu, beste elkarteek ere lokala erabili ahal dezaten.

5.–Udalaren lokaletako espazioak eta aretoak erabiltzeko lagapena esleituta, Udalak elkartearen batzordeari giltzak edo txartelak emanen dizkio lokalean sartu eta hori ireki eta itxi ahal izateko, baita lagako espazioetarako ere. Elkartearen zuzendaritza batzordeak izanen du giltza horiek behar bezala gorde eta erabiltzeko ardura. Lagapen epea bururatuta, zuzendaritza batzordeak Udolari itzuliko dizkio bere esku dituen giltza edo txartel guztiak.

6.–Antsoaingo Udalak errekerimendu egiten dionean alde batera utzi beharko du elkarteak, denbora baterako, lokalean egiten duen jarduera, beharrezkoa ikusten bada Udalaren ekitaldiak egiteko edo beharturik eta nahitaez egin behar direnak egiteko. Hala izanez gero, elkarteak ezin hobeki ordenaturik utzi beharko du lokala, eta Udalaren jarduera egitea tratatzen duen deusik gabe, Udalak horretarako igortzen dion adierazpenean zehazten den epearen barnean.

9. artikulua. Ordu-tegiak.

1.–Banakako erabilera.

Banakako erabilerako lokala elkarte bakar bati lagatzen zaionean, elkarteak nahi duen ordu-tegia ezarri ahal izanen du lokala ireki eta ixteko. Ordu-tegia betiere bateragarria izanen da indarra duen araudiarekin, eta lokala zabalik egonen da astean gutxienezko ordu kopuru batez.

Ordu-tegia eta erabiltzeko orduen kopurua lagatzeko erabakian zehaztuko dira, kontuan harturik bulegoa edo biltegia

den.

Lokaletan eskola-adineko adingabeak edukitzen dituzten elkarteak eskola orduetan horiek ikastetxean egon daitezen arduratuko dira eta lokaletan egon edo sartzea debekatuko diete eskolako ordutegian.

2.–Erabilera partekatua.

a) Lokal bat zenbait elkarteren artean elkarrekin erabiltzeko lagatzen denean, lagatzeko erabakietan zehaztuko da zein egun eta ordutan erabili ahal izanen duen lokala elkarte bakoitzak.

b) Herritar guztientzat irekita dauden zentroak direnean, Antsoaingo Udalak askatasunez ezarriko du zentroa irekitzeko ordutegia.

c) Entitate bati lokala erabiltzeko esleitzen zaion ordutegia eta tokia edonorentzat irekita dagoen ordutegia bat ez badatoz, entitateak lokala erabili ahal izanen du, baina lokaleko atea itxi beharko du sartu eta atera ondoan.

d) Ekipamenduak erabiltzeko egunak eta orduak banatu aitzin kontsulta eginen zaie ukitutako elkarte guztiei.

3.–Dena dela, ordutegi orokorrean, 22:00etan itxiko da beranduenez lokala.

Salbuespenez, aipatutako epean ordutegia luzatzea aztertuko da, eta, hala behar badu, baita baimendu ere, betiere elkarteek ordutegia luzatzea justifikatzen duen programazioa aurkeztuz gero. Tokiko Gobernu Batzarrak emanen du baimen hori.

10. artikulua. Eremu amankomunak.

Zenbait entitatek partekatzen dituzten lokaletan, Antsoaingo Udalak zehaztuko du zein diren zentro bakoitzean guztiek erabiltzeko tokiak eta zertarako eta nola erabil daitezkeen. Esate baterako: iragarki ohola, atezaindegia edo gisakoak.

11. artikulua. Jarduera baimendu gabeak.

Elkartearen autonomia ukatu gabe, lagatako espazio edo aretoen barnean ezin izanen da pertsonen berdintasunaren printzipioen aurkako jarduerarik egin. Horregatik, debeku dira indarkeriazko ekintzak, edo pertsonen duintasunaren kontrakoak, edo arraza, sexua, erlijioa, pentsaera, sexu joera eta gainerako inguruabar pertsonal edo sozialak direla-eta gizabanako edo taldeei bereizkeria egitea.

Debeku da lagatzeko erabakien bidez jasotzen diren lokalak elkartearen estatutuetan ageri ez diren jarduera ekonomikoetarako erabiltzea, bereziki jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsuetarako. Instalazioetan ez da ostatu zerbitzurik izaten ahal.

Lokal guztietan Larrialdi eta Suteetarako Plana eduki behar da. Udalak eginen du, kasuan kasuko elkartearekin lankidetzan.

12. artikulua. Obrak.

1.–Antsoaingo Udalak aitzinetik baimena eman ezean, entitate onuradunek ezin izanen dute inolako obra edo jarduketarik egin erabilera eksklusiborako lagatako tokian, ez ondasun higigarrietan, ezta, oro har, higiezin osoan ere.

2.–Baimentzen diren obra edo jarduketak ondasun higiezinaren mesedetan geldituko dira eta haiengatik ez da inolako kalte-ordain edo diru ordainik bilduko.

3.–Artikulu honetako 1. idatz-zatian xedatua urratzen bada, Udalak lokalaren erabilera elkarteari lagatzeko erabakia ezeztatu ahal izanen du, edota ondasuna lehengoratzeko agindu, eta elkarteak ez du eskubiderik izanen kalte-ordain edo konpentsazio ekonomikorik biltzeko. Erabiltzaileak egin ezean, haren ordezkari Udalak egin ahal izanen ditu lehengoratze obrak eta entitateak ordaindu beharko du kostua. Ondasuna lehengoratzerik ez badago, hondatuko litzatekeelako, kalteen eragileak kalte-ordaina eman beharko du.

13. artikulua. Erantzukizun zibila.

1.–Entitate bakoitzak zuzenean erantzun beharko du berari lagatako tokietan bere kide eta erabiltzaileek ekintzaz edo omisioz, doloz edo zabarkeriaz hirugarrenei eragiten dizkieten kalte eta galerengatik. Udala ere hirugarrena izanen da.

2.–Elkarteek, berriz, berea duten edukia aseguratuko dute, beren material eta ondasunak bermatzeko, beharrezkotzat jotzen badute. Edukiaren gaineko asegururik ez bada, Udalak ez du bere gain hartuko harekin gertatzen ahal den galera, ebasketa edo kalterik.

III. TITULUA

ELKARTE ETA ENTITATEEN BETEBEHARRAK. BETETZEAREN KONTROLA

14. artikulua. Betebeharrak.

Herritarren elkarte eta entitate guztiek ordenantza honetako arau orokorrak bete behar dituzte, eta zehazki:

a) Lagatzeko erabakian ezarritako ordutegiak edo Antsoaingo Udalak baimentzen dizkienak begiratu behar dituzte.

- b) Lagatako tokia beren xedeetarako erabili behar dute eta, beraz, beren jarduera programa betetzeko, eta lagapen erabakian ezartzen edo Udalak baimentzen dituen helburuetarako.
- c) Lokalean ez dute inola ere hirugarrenen publizitate komertzialik eginen, Udalaren baimena izan ezean. Publizitatetzat joko da zerbitzu eta/edo ondasun higigarri nahiz higiezinen salerosketa edo kontratazioa zuzenean edo zeharka eragin edo sustatzea xede duen komunikazio mota oro.
- d) Lokala erabiltzen duten beste entitate edo elkarteei esleitutako tokiak errespetatu behar dituzte, haien jardueretan trabarik egin gabe.
- e) Guztiek erabiltzeko tokien helburua eta xedea errespetatu beharko dituzte.
- f) Lokalak erabiltzen dituzten orduetan ez diete eragozpenik sortuko auzokoei eta ez dute inguruko lasaitasuna hautsiko. Horretarako, indarra duen araudian ezarritako neurriak hartuko dituzte.
- g) Erabiltzeko lagatzen zaizkien tokiak egoera onean edukiko dituzte osasungarritasun eta higiearen aldetik.
- h) Lokaleko giltzak zainduko dituzte eta zentroa itxiko dute, erabiltzen azkenak badira, salbu eta lagapen erabakian bertzerik xedatzen denean. Gainera, lagatako tokiak behar bezala erabil daitezzen begiratu dute, erabiltzaileak zainduz eta kontrolatuz.
- i) Esleitu zaien tokiaren erabilera ez diote inori lagako ez osorik ez zati batean, elkarteko kidea izan ala ez.
- j) Jendearendako zabalik dauden lokaletan, funtzionamendu orduetan, ez diote inori sarrera galaraziko bere arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik, sexu joeragatik edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialengatik.
- k) Gertatzen diren goiti-beheiti edo arazoen berri emanen diote Antsoingo Udalari, eta larrialdiak berehala jakinaraziko dizkiote.
- l) Erabilera lagatzeko erabakia iraungi edo ezeztatuz gero, tokiak eta ondasunak Antsoingo Udalari itzuliko dizkiote lehengo hartan, erabileraren ondoriozko higadura salbu.
- m) Uneoro Udalari jarraipen eta ikuskapen ahalmena erabiltzen utziko diote, ordenantza hau, indarra duten arauak eta erabilera lagatzeko edo baimentzeko erabakia betetzen diren begiratu ahal dezan. Leku guztietara sartzen utziko diote eta eskatzen dituen informazioa eta agiriak emanen dizkiote.

15. artikulua. Betebeharrak betearazteko kontrolaren araubidea.

Lokalak erabiltzen dituzten entitateen arau-haustetzat joko dira:

- a) Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, baimena izanik okupaturiko lokal edo egoitza egunero garbitzeko lanak ez egitea.
- b) Lokaletan, instalazioetan, ekipamenduetan eta erabilitako lokaletako ondasun higigarrietan kalteak egitea.
- c) Alkatearen baimenik gabe, erabilitako eraikin edo lokaletan sartzeko giltzen kopiak egitea.
- d) Erabili diren eraikin eta lokaletatik behin betikoz alde egiten denean giltzak berehala ez itzultzea.
- e) Beste edozein arau-hauste, ordenantza honen kontra.
- f) Eskola ordutegian, 16 urtetik beheitiko bati lokalean sartzera uztea.

16. artikulua. Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Arau-hauste arinak izanen dira aitzineko artikuluko a, d eta e letretan ezarritakoak.

Arau-hauste larriak, aitzineko b, c eta f letretan ezarritakoak eta urtebetean bi arau-hauste arin egitea.

Arau-hauste oso larriak izanen dira bi arau-hauste larri egitea, edo bi arin eta larri bat, urtebetean.

17. artikulua. Arau-haustek honela zehatuko dira:

- a) Arinengatik, 100 eurotik 500 eurora bitarteko isuna.
- b) Larriengatik, 501 eurotik 1000 eurora bitarteko isuna.
- c) Oso larriengatik, 1001 eurotik 1800 eurora bitarteko isuna.

Udaleko alkatea da zehapen hori ezartzeko organo eskuduna. Zehapena ezartzeaz gainera kalte-galeren ordaina eskatuko da, bidezkoa denean.

IV. TITULUA

UDALAREN AHALMENAK ETA BETEBEHARRAK

18. artikulua.

Lagatako lokalak noiznahi ikuskatzeko ahalmena du Antsoingo Udalak. Ikuskapenaren ondorioz, entitate onuradunaren ez-betetze larri edo oso larriren bat agerian gelditzen bada, Udalak zilegi izanen du arauak betetzeko

eskatzea edo lokalak erabiltzeko lagapena edo baimena ezeztatzea. Betiere, Herritarren Partaidetzaren Informazio Batzordeari txostena emanen zaio.

19. artikulua.

Antsoingo Udalak betebeharrak hauek ditu:

- a) Ordenantza honetatik eta indarra duen legeditik sortzen direnak.
- b) Lokal bakoitzean guztiek erabiltzen dituzten tokiak egoera onean edukitzea osasungarritasun eta higiearen aldetik.
- c) Antsoingo Udalari dagozkio egiturazko mantentze-lanak, hau da, eraikinaren egitura, fatxadak eta estalkiak eta kanpoaldeko zerbitzu-harguneak mantentzeko konponketak eta berrikuntzak, baldin eta lokalaren erabilera arrunt eta ohikoaren ondoriozkoak badira. Halaber Udalari dagokio ur, argi, berokuntza eta gas horniduretarako loturak egitea.

V. TITULUA

ERABILERAREN LAGAPENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK

20. artikulua.

Udalak jabetzarik gabe lagako ditu ordenantza honen xede diren lokalak. Jabetzarik gabeko lagapena Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki arrazoituaren bidez amaituko da. Udalak entitate onuradunari bi hilabeteko epea emanen dio lokala itzultzeko, behar den errekerimendua eginez.

Lagatzeko erabakia arrazoi hauengatik iraungi daiteke:

- a) Hasierako epe-muga iristeagatik; urte bakoitzaren 31 da azkeneko eguna, eta ez dago luzatzerik.
- b) Alderdiak ados jarri direlako.
- c) Entitateak uko egiten dielako lagatuko lokalei, edo ez dituelako benetan erabiltzen.
- d) Lagapen erabakian onartu ez diren edo ordenantza honekin bat ez datozen jarduerak, zerbitzuak edo bertzelakoak, batez ere, partikularrei irabaziak dakarzkieten jarduera ekonomikoak, etengabe egiten direlako edo horiek bakarrik egiten direlako.
- e) Entitatea desegin delako.
- f) Lokalaren beharra dagoelako, behar adina arrazoituta, beste zerbitzu publiko batzuk egiteko.
- g) Betiere, ordenantza honen 15. artikuluko arau-hauste oso larri bat baino gehiago, bi arau-hauste larri baino gehiago eta sei arau-hauste arin egiteagatik.

21. artikulua.

Arrazoi horietako batengatik erabileraren lagapena iraungitzen denean, entitate edo elkarteak ez du eskubiderik izan inolako kalte-ordain edo konpentsazio ekonomikorik biltzeko.

22. artikulua.

Erabilera lagatzeko erabakia suntsitu edo iraungi ondotik, elkarteak, 15 egun natural iragan aitzin, berriz ere Antsoingo Udalaren esku jarri beharko ditu lagatuko tokia eta ondasunak. Hala egin ezean, atzerapenak ekar ditzakeen kalte-galeren erantzulea izanen da.

Lehen xedapen iragankorra.

Ordenantza hau onestean Udalaren lokal, eraikin edo instalazioak erabiltzen ari diren entitateek, unean uneko edo behin-behineko beharretarako ez badira, erabiltzen ari diren lokalaren erabilera lagatzeko eskabide berria aurkeztu beharko dute 2 hilabeteko epean, ordenantza honek indarra hartzen duenetik hasita; gero, ordenantza honetan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Bigarren xedapen iragankorra.

Ordenantza honek ez du arautuko lokal publikoen lagapen berezirik, hots, ordenantza honetan jasotakoez bestelako erabilerak izateagatik beste hitzarmen bat behar dutenetariki. Hala ere, lagapen bereziak egiteko erabaki berariazkoek ordenantza honetan araututakoa beteko dute, honako hauei dagokienez: Udalaren kontrol araubidea, eginbeharrak, zehapen araubidea, obrak, Udalaren ahalmenak eta betebeharrak eta lagapena iraungitzeko zergatiak.

Azken xedapen bakarra.

Ordenantza honek ez du ondorio juridikorik izan harik eta testua oso-osorik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta egoki den epea iragan arte, Estatuko edo Foru Komunitateko Administrazioek toki entitateei errekerimendua egiteko, haien egintzak edo erabakiak deuseztatzeari begira.

I. ERANSKINA

LAGAPENAREN XEDE IZAN DAITEZKEEN LOKALEN ZERRENDA

Mendikale kaleko 8ko lokala.

Gizarte etxea.

Lotza kaleko lokalak.

Harrobietako kaleko lokalak.

Osasun etxe zaharreko lokalak.

Liburutegi zaharreko lokala.

II. ERANSKINA

[Udalaren lokala erabiltzeko eskaera](#) (PDFa).

III. ERANSKINA

[Udalaren lokala erabiltzeko eskaera berritza](#) (PDFa).

Iragarkiaren kodea: L1609089